



VIANA HIRIA KONTAKETA ETA IPUINEN XXXVI. LEHIAKETA



AYUNTAMIENTO DE VIANA
VIANAKO UDALA

1.- 1. Lehiaketan, batetik, Lehen Hezkuntzako edozein ikaslek parte har dezakete eta, bestetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein ikaslek.

2.- Ipuinak gaztelaniaz edota euskaraz idatzita egon beharko dira, DIN-A4 tamainan, 12 puntuko Arial letra-tipoan edo eskuz. Bigarren Hezkuntzako ikasleen lanek gehienez hiru orrialde izanen dituzte eta, Lehen Hezkuntzako lanek, bi. Gaia librea izanen da.

3.- Egile bakoitzak ipuin bakarra bidaliko du, goitizenez idatzia, eta ipuinarekin batera gutun-azal itxi bat, eta barnean datu pertsonalak (izen-abizenak, telefonoa, posta-helbidea, posta elektronikoa eta zer ikastetxetan ari den), eta kanpoaldean honakoak idatziko dira: ipuinaren izenburua, goitizena, ikasmaila eta zer kategoriatan parte hartzen duen. Onartuko dira, halaber, e-mail honetan posta elektronikoz jasotzen diren ipuinak: turismoycultura@viana.es. E-malez ere arestian eskaturiko datuak idatzi beharko dira eta gaien "Kontakizun eta Ipuin Lehiaketa" adieraziko da.

4.- Bazterturik geldituko dira egile batek baino gehiagok idatzitako lanak.

5.- 2023ko azaroaren 24ra bitarte (ostirala) jasotako originalak onartuko dira.

6.- Epaimahaiari LEHEN ETA BIGARREN Hezkuntzako hainbat irakasle izanen dira kide eta erabakia 2024ko otsailaren 1ean argitaratuko da jendaurrean, San Felices egunean, alegia.

7.- Hiru sari daude kategoria bakoitzeko: lehen saria, 150 €-ko liburu-denda txartela eta diploma; bigarren saria, 100 euroko liburu-denda txartela eta diploma; hirugarren saria, 75 euroko liburu-denda txartela eta diploma. Epaimahaiak accesit bat ematen ahalko du kategoria bakoitzeko, diploma bat, hain zuzen ere.

8.- Hona hemen kategoriak:

- LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK, GAZTELANIAZ.
- LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK, EUSKARAZ.
- BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEAK, GAZTELANIAZ.
- BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEAK, EUSKARAZ

9.- Udalak beretzat gordeak ditu egile-eskubideak, bai eta erreprodukzio eta erabilera eskubideak ere, bai lan sarituen gainekoak, bai aipamen berezia jaso duten lanen gainekoak, halakorik izan bada. Ipuin sarituak formatu digitalean aurkeztuko dira ipuin irabazleen bilduma-liburuaren ediziorako.

10.- Jabeek, halaber, saritu gabeko originalak eskatzen ahalko dituzte hurrengo deialdia iragarri baino lehen.

11.- Kontakizunak bidaltzeko eta edozein kontsulta egiteko, jo helbide honetara:

Vianako Udala. Kultura Batzordea.-

Foruen plaza.- 31230 Viana (Nafarroa)

Tel. 948 44 63 02 www.viana.es +

turismoycultura@viana.es

12.- Lehiaketan parte-hartzea oinarri hauen guztien onarpena dakar, bai eta oinarri guztien betekizuna ere.

13.- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da eta sariak eman gabe gelditzen ahal dira.

Oinarrizko informazioa datuak babesteari buruz. Parte-hartzaileengandik jasotzen diren datuak tratatzeko arduraduna: Vianako Udala. Xedea: lehiaketaren kudeaketa egitea. Hartzaileak: irabazleen identifikazio-datuak hedabideetan eta sare sozialetan argitaratzea. Eskubideak: datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta beste eskubide batzuk. Argibideak www.viana.es webguneko pribatutasun politikan eta dppd@viana.es helbidean.